



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



PRENTSARAKO OHARRA

BIZKAIKO 150 UME INGURUK BERBEA HARTU DABE OSOKO TXIKIAN, PARTE HARTZEKO DAUKIEN ESKUBIDEA DEFENDIDUTEKO

- **Bizkaiko Batzar Nagusiek eta UNICEFen Euskadiko Batzordeak hirugarren urtez jarraian antolatu dabe osoko saio berezia Gernikako Batzarretxean.**

(Gernikan, 2019ko azaroaren 22an).- Gernikako Batzarretxeak Osoko Txikia jaso dau gaur. Bertan, 12 eta 14 urte arteko ikasleak izan dira protagonistak, eta umeen eta nerabeen eskubideak defendiduteko eta parte hartzeko daukien eskubidea azpimarratzeko hartu dabe berbea. 150 ikasle inguru –Ermuko San Pelayo, Leioako Askartza Claret, Portugaleteko Nuestra Señora del Carmen eta Leioako Betiko Ikastolako ikasleak– normalean batzarkideak jarten diran jarlekuetan jarri dira, eurentzat garrantzitsuak diran gaiei buruz berba egiteko.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako ordezkari gorena izan da Osoko Txikiaren buru, eta bere ondoan Isidro Elezgarai UNICEF erakundeko Euskadiko presidentea eta Begoña Gil, Zigor Isuskiza eta Emilio Lobato, Batzarretako Mahaiko lehenengo Lehendakariordea, bigarren Lehendakariordea eta bigarren idazkaria, hurrenez hurren, egon dira. Euren atzean Alazne Solorzano Peña, Iker Sevilla Rubio, Alex Marcé Bilbao eta Uxue Emaldi Zorrozuza jarri dira, lau ikastetxeak ordeztuz.

Bertan egon dira, baita be, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako Diputatua eta Bizkaiko Batzar Nagusietako Gizarte Ekintzako Batzordea osatzen daberen kideak.

Ondo etorria emoteko berbaldian, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak Batzarretxearen historia azpimarratu dau, eta Gernikako Arbolea “Euskal Herriaren bakearen eta askatasunaren ikurra” dala esan dau, “geure iragana orainaldiagaz lotzen dauen elementua”. “Zeuok zarie gaur Bizkaiko Parlamentua”, azpimarratu dau Otadui.

Atriletik, bikoteka, mutiko batek eta neskato batek hartu dabe parte, eta giza eskubideen eta partaidetzaren inguruan klasean egin dituen aurretiazko gogoeten barri emon dabe. Gogoeta horreek Euskadiko UNICEFek DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleentzat antolatzen dauen “Emon ahotsa zure balioei” programaren barruan egin ditue.

Betiko Ikastolatik, Mariñe Elejaga Lasak eta Ainhize Ubierna Artalek egin dabe berba; Askartza Claretetik, Izaro Macías Indiasek eta Maren Barrutia Campok; Nuestra Señora del Carmenetik, Ana Páez Gonzálezek eta Ibon Arenillas Sanzek; eta San Pelayotik, Maialen Varela Jiménezek eta Jon Lucas Del Ríok.

Horren ostean irakurri daben Adierazpenean hau itzi dabe argi eta garbi: “Gure ahotsa entzutea, errespetetea eta kontuan izatea gura dogu, esan behar dogunari garrantzia kendu barik, gure adina, jatorria edo identitatea bat edo beste izan arren. Badakigu munduko leku askotan ez dirala Giza Eskubide guztiak errespetetan, eta mundua, persona eta eskubide guztiak errespetauko diran lekua bilakatzeko burukatu gura dogu”.

Parte hartu daben lau ikastetxeetako 12 adinbakok eta Bizkaiko Batzar Nagusietako eta Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak Adierazpena sinatu ostean, UNICEF erakundeko Euskadiko presidentek egin dau berba.

“Orain 30 urte, munduko agintariek konpromiso historikoa hartu eben mundu osoko umeakaz. Hiru hamarkada geroago, umeen eta nerabeen eskubideak ez dira aldatu, ez daukie iraungitze datarik”, adierazo dau Isidro Elezgarai, eta ikasleei euren ahotsa entzunazoteko eta ekiteko eskatu deutse, “gizarte garapenea lortzeko oinarrizko ardatza zarielako”.

Amaitzeko, hamabi umek eta UNICEF erakundeko Euskadiko presidentek Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariagaz batera, euren sinadurea jarri dabe Ohorezko Liburuan, ekitaldia gogoratuazoteko. Ekitaldia, Izaskun Gutiérrez Antón clown-aren emonaldiagaz bukatu da.

Bizkaiko Batzar Nagusiek eta UNICEFen Euskadiko Batzordeak hirugarren urtez jarraian antolatu dabe osoko saio berezia, Umeen Eskubideei buruzko Konbentzinoaren, historia osoan berrespen gehien jaso dituan giza eskubideen nazioarteko tratauaren, 30. urteurrena bete eta egun bira, eta datorren astelehenean, azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna egin baino hiru egun lehenago.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA



NOTA DE PRENSA

CERCA DE 150 NIÑOS Y NIÑAS DE BIZKAIA TOMAN LA PALABRA EN EL PLENO TXIKI PARA DEFENDER SU DERECHO A LA PARTICIPACIÓN

- **Las Juntas Generales de Bizkaia y UNICEF Comité País Vasco han organizado por tercer año consecutivo esta sesión plenaria especial en la Casa de Juntas de Gernika**

(Gernika, a 22 de noviembre de 2019).- La Casa de Juntas de Gernika ha acogido hoy el Pleno Txiki, en el que escolares de 12 a 14 años han sido protagonistas y han tomado la palabra para defender los derechos de la infancia y la adolescencia y su derecho a la participación. Cerca de 150 alumnas y alumnos -estudiantes de los centros San Pelayo de Ermua, Askartza Claret de Leioa, Nuestra Señora del Carmen de Portugalete y Betiko Ikastola de Leioa- se han sentado en los escaños que habitualmente ocupan junteros y junteras para hablar de temas que les preocupan.

Ana Otadui, máxima representante de las Juntas Generales de Bizkaia, ha presidido el Pleno Txiki, acompañada por Isidro Elezgarai, presidente de UNICEF en el País Vasco, y por Begoña Gil, Zigor Isuskiza y Emilio Lobato, vicepresidenta primera, vicepresidente segundo y secretario segundo, respectivamente, de la Mesa de la Cámara Foral. Detrás se han sentado también Alazne Solorzano Peña, Iker Sevilla Rubio, Alex Marcé Bilbao y Uxue Emaldi Zorrozuza, en representación de cada uno de los cuatro centros educativos.

También han estado presentes Sergio Murillo, Diputado de Acción Social así como el conjunto de junteros y junteras que integran la Comisión de Acción Social de las Juntas Generales de Bizkaia.

En su discurso de bienvenida, Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia ha destacado la historia de la Casa de Juntas y ha definido en Árbol de Gernika como “el símbolo de paz y libertad del pueblo vasco, el elemento que enlaza nuestro pasado con el presente”. “Vosotras y vosotros sois hoy el Parlamento de Bizkaia”, ha subrayado Otadui.

Desde el atril, han intervenido por parejas un niño y una niña que han contado las reflexiones previas que sobre derechos humanos y participación han realizado en clase dentro del programa “Dale voz a tus valores” que organiza UNICEF Comité País Vasco para alumnado de 1º, 2º y 3º de ESO.

De Betiko Ikastola, han tomado la palabra Mariñe Elejaga Lasa y Ainhize Ubierna Artal; de Askartza Claret, Izaro Macías Indias y Maren Barrutia Campo; de Nuestra Señora del Carmen, Ana Páez González e Ibon Arenillas Sanz, y de San Pelayo, Maialen Varela Jiménez y Jon Lucas Del Río.

A continuación, han leído una Declaración en la que han dejado claro: “Queremos que nuestra voz se escuche, se respete y se tenga en cuenta, sin restar importancia a aquello que tengamos que decir, independientemente de nuestra edad, origen o identidad. Sabemos que en muchos lugares del mundo no se respetan todos los Derechos Humanos y pretendemos luchar para hacer del mundo un lugar donde se respeten todas las personas y derechos”.

Tras la firma de la Declaración por 12 menores de los cuatro centros escolares participantes y por representantes de las Juntas Generales de Bizkaia y de la Diputación Foral de Bizkaia, ha intervenido el presidente de UNICEF en el País Vasco.

“Hace 30 años, dirigentes mundiales contrajeron un compromiso histórico con los niños y niñas del mundo. Tres décadas después, los derechos de la infancia y adolescencia no han cambiado, no tienen fecha de caducidad”, ha asegurado Isidro Elezgarai, quien ha pedido a los y las escolares que hagan oír su voz y que pasen a la acción “porque sois un factor clave para el desarrollo de nuestra sociedad”.

Como colofón, una docena de niños y niñas junto con la Presidenta de la Cámara Foral de Bizkaia y el Presidente de UNICEF País Vasco han estampado su firma en el Libro de Honor en recuerdo de este acto, que ha terminado con la actuación de la clown Izaskun Gutiérrez Antón.

Las Juntas Generales de Bizkaia y UNICEF Comité País Vasco han organizado por tercer año consecutivo esta sesión plenaria especial, dos días después de la conmemoración del 30º aniversario de la Convención sobre los Derechos de la Infancia, el tratado internacional de derechos humanos más ratificado de la historia, y a tres días de la celebración este lunes día 25 del Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres.